

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Bai mundu berria!

K.a. 4004KO URRIAREN 23A, GOIZEKO 09:00AK. Mundua sortu zen, James Ussher (1581-1656) artzapezpiku irlandarraren arabera.

Ussherrek bere kronologia osatu eta argitaratu baino lehen, dagoeneko baziren mende batzuk aditu katolikoak Lurraren adinari buruzko ikerketan eta eztabaidan zebiltzala. Biblian jasotakoak literalki hartuta atzera egin ez kalkulatzen zuten jainko kristauak mundua, bizitza eta gizakia sortu zitueneko lanastea. Eta gehienek K.a 4000. urtearen inguruan ipini zuten munduaren jaioturtea: Bedek 3952.ean, Scaligerrek 3949.ean, Johannes Klepperrek 3992. urtean eta Isaac Newtonek 4000. biribilean. Baina Armagheko artzapezpikuak Dionisiok *Anno Domini* egutegi sisteman egindako akatsa kontuan izan zuen eta, Jesukristo K.a 4. urtean jaio zela kalkulatu ondoren, 4004. urtea aukeratu zuen.

Kreazioa zer urtarotan gertatu zen ere eztabaida teologiko sakona izan zen Ussherren garaian. Babiloniarren, kaldearren eta beste kultura batzuen kronologiak udaberriari hasten zirenez, hainbat adituk horren alde egin zuten. Beste batzuek ordea –Ussherrek barne– udazkenean izan zela uste zuten, judutarren urtea orduan hasten baitzen. Irlandarrak gehiago zehaztu zuen: udazkeneko ekinozioaren inguruko igande batez izan zen. Zergatik igandea? Jainkoak zazpigarren egunean atsedean hartu zuelako. Judutar tradizioan atsedean eguna larunbata da eta, hortaz, jainkoak sei eguneko lana aurreko igandean hasi zuen. Ziuraski Keplerren *Tabulae Rudolphinae* (1627) taula astronomikoak eskura



Goian, Armagheko artzapezpiku James Ussherren erretratua. Alboan, *Annales veteris testamenti, a prima mundi origine deducti* (1650) lanaren 1658ko ingelesezko edizioaren azala, non artzapezpiku irlandarrak munduaren sorrera-data argitaratu baitzuen.

zituela, ekinozioa urriaren 25ean –asteartea– izan zela eta, beraz, sortzailearen lanak bi egun lehenago hasi zirela ondorioztatu zuen.

Ussherren mundu gaztea bitxikeria baino ez da gaur egun, baina bere garaian Biblian jasotakoak erabateko egiazat jotzeak eliza katolikoaren eta zientziaren arteko bereizketa areagotzea baino ez zuen ekarri. Eta bereizketa horrek, besteak beste, hainbat zientzialari sutara bidali zituen.

Egun badakigu gure planetak eta bizitzak 6.000 urte baino askoz gehiago dituztela, baina gizakiok, bertako biztanle gazteenetakoek ere. Eta Ussherren beste kalkulua baten porrota baieztatzeko moduan gaude. Bibliak dio: “Ez ahaztu Jaunarentzat egun bat 1.000 urte bezala dela eta 1.000 urte egun bat bezala”. Beraz, artzapezpikuak uste zuenez, sei egunean sortutakoa 6.000 urtean amaituko zen, hots, 1997an. Hamaika urteko propina izan dugu behintzat.

Arrastoak



Kunsthistorisches Bilbon

GUGGENHEIM BILBAO museoan *Artearen historia guztiak: Vienako Kunsthistorisches Museum-a* erakusketa paratu dute urtarrilaren 18ra arte. Vienako museoa mendebaldeko arte historia dastatzeko menu modukoa da, eta Bilbora mokadu ederrenetakoak ekarri dituzte: Tin-

toretto, Brueghel, Tiziano, Holbein (irudian), Velazquez, Durero... Erakusketak Austria-Hungariako familia inperialaren zaletasunaren historia ere kontatzen digu, Maximiliano I.ak bildumaren lehenengo artelanak eskuratu zituenetik, Frantzisko Jose I.ak pinakoteka sortu arte.